



ATZERRIKO HIZKUNTZEN EZAGUTZA ETA IKASKETA (2017ko maiatza) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gai nagusia EAEko herritarrek atzerriko hizkuntzen ezagutza eta ikasketari ematen dioten garrantzia izan da, euren ezagutza maila, erabilera eta gaur egun ikasten ari direnen egoera aztertuz.

Landa lana 2017ko apirilaren 6an eta 7an egin zen.

ATZERRIKO HIZKUNTZAK GARRANTZITSUAK DIRA

Euskadiko hezkuntza sistemak hizkuntzen irakaskuntzari lehen baino garrantzia handiagoa ematen dio

Euskadiko biztanleek (%95) uste dute atzerriko hizkuntzen ezagutzak garrantzi handia edo nahikoa duela.

Gehiengoaren ustez (%68), **euskal hezkuntza sistemak egun atzerriko hizkuntzen irakaskuntzari garrantzia** "handia" edo "nahikoa" ematen dio, 2011an aitortzen zitzaiona baino pixka bat altuagoa (%65). Soilik laurden batek uste du garrantzi txikia edo batere ez zaiola ematen. Gaur egun ematen zaion garrantzia aurreko belaunaldiena baino altuagoa da, %75 baitira lehen hizkuntzen irakaskuntzari garrantzia txikia edo batere ez zitzaiola ematen uste dutenak.

Euren lan-bizitzan edo ikasketetan herritarren %73 ez da sentitu kaltetua edo desberdintasun egoeran atzerriko hizkuntzarik ez hitz egiteagatik, hala sentitu den %26ren aurrez aurre.

INGELES DA ATZERRIKO HIZKUNTZA EZAGUTUENA

Biztanleen herenak diote ingelesa idatzi eta hitz egiten dakitela. Gazteen artean ingelesaren ezagutza nagusi da

Elkarrizketatuen %35ek diote ingelesez "hitz egin eta idatzi" egiten dutela, %11k frantsesez, %2k alemanez, %1ek portugesez, %1ek italieraz, eta %2k beste hizkuntzaren batetan (gailegoa, katalana, errusiera, txinera, poloniera, eta abar).

2011rekin alderatuz, ingelesaren **ezagutza maila** pixka bat handitu da, %32koa zen, eta frantsesarena mantendu da.

Euskadin ingelesaren ezagutza maila Espainia osoan baino 7 puntu altuagoa da.

Gehien ezagutzen diren hizkuntzen kasuan, ingelesa eta frantsesa, portzentajeak dezente aldatzen dira elkarrizketatuen **adina** kontutan hartzen badugu. Nagusienari dagokionez, ingelesa, 18-29 urte bitarteko gazteen %78k "hitz egin eta idazteko" gai direla dioten bitartean, 30-45 urte bitartekoen artean %46ra jaisten da, 46-64 urte bitartekoan artean %15era, eta 65 urte edo gehiago dituztenen artean %8raino. **Ikasketa maila, klase soziala eta gurasoen atzerriko hizkuntzen ezagutza** portzentajea igo ahala ere, nabarmen gora egiten du ingelesaren eta frantsesaren ezagutzak.

Atzerriko hizkuntzaren bat "hitz egin eta idazten" edo "soilik hitz egiten" badakitela diotenen artean, nabarmen txikiagoa da **elkarrizketa batean euren iritzia zehatz, argudiatuz eta besteen iritziei kontrajarriz adierazteko gai** direnen portzentajea: %69 gai da portugesez, %61 italieraz, %56 ingelesez, %46 alemanez, %43 frantsesez eta %68 beste hizkuntzaren batean.

Ikasketa eremu nagusia "eskola, ikastola edo institutua" da, ingelesaren kasuan %46rentzat eta frantsesarenean %63rentzat. Gainerako hizkuntzetan asko murrizten da eskolaren lekua, eta beste bide batzuk indarra hartzen dute: "irakasle partikularra edo akademia espezializatua", "atzerrian egonaldiak" edo etxean bertan.



Elkarrizketatutako pertsonen %79ren gurasoek “ez dakite atzerriko hizkuntzarik”, guraso biek dakite %6ren kasuan eta gurasoetatik bakarrak %14rean. Frantsesa eta ingelesa dira gurasoen artean hizkuntzarik ezagutuena, %62k eta 37k dakizkitez, hurrenez hurren, hizkuntzaren bat dakitenean artean.

ERABILERA NABARMEN BEHERA EGITEN DU EZAGUTZA MAILAREKIKO

Ingelesa gailentzen da erabilera eta aisialdian erabiltzen da batez ere

Elkarrizketatutako pertsonen %44k ez dakite atzerriko hizkuntzarik (%48 ziren 2011an). Ingelesa da maiztasun handiagoz erabiltzen den hizkuntza (%43k darabilte), atzetik oso urrun frantsesa (%10) eta beste hizkuntzak (%3) geratzen dira. Frantsesaren erabilera Gipuzkoan beste bi lurraldeetakoaren ia bikoitza da (%15koa, %8aren parean).

Elkarrizketatutako pertsonen %7k diote atzerriko hizkuntzaren bat “egunero” erabiltzen dutela; %8k “maiz, baina ez egunero”, %19k “noizean behin”, %23k “inoiz edo ia inoiz ez”.

Erabilera esparru nagusia aisialdia da, %24k hartarako darabilte. “Lanerako” erabiltzen dutela diote %14k, “familia edo lagunekin harremanak izateko” %10ek eta “ikasketetarako” %9k.

ATZERRIKO HIZKUNTZAREN BAT IKASTEN ARI DIRA 8%; GAZTEEN ARTEAN %23 DIRA

Nagusiki ingelesa ikasten ari dira eta berau ikastea nahi lukete ikasten ari ez direnek ere

Gaur egun **hizkuntzaren bat ikasten ari** direla diote herritarren %8k. %77k hizkuntzaren bat ikasteko gogoia adierazi dute, %13k ez direla ikasten ari, ezta ikasi nahi ere dioten bitartean. Egoera 2011koaren oso antzekoa da.

Portzentajeak dezente aldatzen dira elkarrizketatuen **adina** kontutan hartzen badugu. Gazteen %23k ikasten ari direla dioten bitartean, 30-45 urte bitartekoen artean %7ra jaisten da, 46-64 urte bitartekoan artean %6ra, eta 65 urte edo gehiago dituztenen artean %1raino.

Elkarrizketatutako pertsonen ikasten ari direla dioten hizkuntza nagusiki ingelesa da (%83), urrun datoz frantsesa (%13), alemana (%3) eta beste hizkuntzak (%2). 2011eko datuekin alderatuta, 5 puntu igo da ingelesa ikasten dutenen portzentajea eta 6 puntu jaitsi da, aldiz, beste hizkuntzak ikasten dituztenena. Halaber, **ikastea nahi luketen hizkuntzari** buruz galdetutakoan, %53k ingelesa aipatu dute, %13k frantsesa, %11k alemana, %8k beste hizkuntza batzuk eta %13k batere ez. Espainian hizkuntzarik ikasi nahi ez dutenak %27raino igotzen dira.

Hizkuntza bat ikasteko **arrazoiak** anitzak dira: %45k diote, batez ere, “lanerako edo ikasketetarako behar dutelako” ari direla ikasten, %28k “hizkuntzak ikastea atsegin dutelako”, %15ek “bidaiatzeko”, %8k “beste herrialde batetara joango direlako bizitzera” eta %1ek “beste arrazoiak”. 2011kin alderatuta, igo egin da euren lanerako edo ikasketetarako behar dutenen portzentajea (%40 ziren) eta jaitsi, aldiz, ikastea gustuko dutelako egiten dutenena (%38 ziren).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.000 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,2$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2017ko apirilak 6 eta 7an egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_sociologikoak